

Caracas hirian espazio publikoen esanahia iraultzen ari da



Karibear eta hegoamerikar plaka tektonikoek elkarren kontra talka egiten duten gunean (*Boconò* faila ospetsuaren eragin eremuan), mendilerro karibear batez babestuta dago *-Kostaldeko* mendilerroa bezala ezaguna da eta 2.000 metrotik gorako tontorrez hornitua- itsasertzetik 15 km-ra, eta itsaso mailatik 900 metrora kokatzen den harana, hiri menditsua da *Caracas*. *Guaira* bizia ematen saiatzen den ibai nagusia da.

Hiri honetan lurralde garapen eredu berri baten izenean, gizatiarren jarduera gidatzen duten ohiko paradigmen iraulketa gertatzen ari da, hots, kontzentrazio ekonomikoan, espazio segregazioan eta asimetria sozialetan oinarritutako paradigmen iraulketa, zabalagoa den Errepublika osoa hartzen duen dimentsio anitzeko liberazio prozesu baten testuinguru politikoan. Horren lekuko sinboliko esanguratsua *Hiri Eskubideari (El Derecho a la Ciudad)* aitortza konstituzionala ematea izango litzateke².

*Caracas*en garatu diren hiri-patologiek zilegitasuna ematen diote aipatu ditugun ohiko paradigma horien iraulketaren zentzuari. *Caracas* bere osasunaren arazoaz jabetu izan balitz bezala. Errepublika osoko nodo nagusiaren zama bere gain hartu izan du *Caracas*-ek, elkarri loturik dauden hurrengo fenomenoak eraginez:

- a. Gizarte larrialdiak eragindako asentamendu inprobisatuen zabalkundea, eta etxebizitza kaskarren zabalkundea, kalean ez bizitzea erabakitzen denean. Zonalde hiritartu eta sasi-hiritartuaren arteko eremuak gehitu egin dira honezkerok, hiri espazioen arteko lotura kolokan jarritz. Fenomeno hori *Barrios (Villas* Argentinan, *Favelas* Brasilen) deiturikoen asentamendu moten hedapenarekin lotuta dago, hots, *hiri informalaren* hazkunderarekin.
- b. Hiri-hornidurako zerbitzu sistema ezberdinen defizitaren orokortze prozesua, saneamendutik hasi eta ur-horniduraraino. Fenomeno horrek osasun publikoan sortzen dituen arazoak asko dira. Esaterako, gaixotasun hidrikoen gorakada eta horrek haurren hilkortasun-tasan duen eragina, kasurako.
- c. Garraio bide guztien kolapsoa. Autoen jario-hazkunde itzelak ez du etenik, garraio bide sistema gero eta geldoago doa, paradoxikoki. Hori gutxi balitz, 22 litro gasolinaren truke euro bakar bat ordaintzeak ez du laguntzen. Hiriaren antolakuntza premiak autoei bakarrik egiten die mesede, oinezkoen beharretatik urrun. Autoak nagusitzen dira espazio publikoek eta hiritartasunaren sententzia kolokan jartzen da.
- d. Hiri osoaren higadura prozesuen azkartzea eta kontrolik gabeko hiri hondakinen pilaketak. Azken urteetako garapen azkarrak, jokoan kanpo harrapatu du Hiri, presio demografikoak eta horrek dakartzen kontsumo beharren gorakadak eta ibilgailu motorizatuen presio etengabeak eragina dute hiriaren ekipamenduan, kaleetan.

Fenomeno horietaz aparte, begiak itxita, hiri honen ezaugarriak irudi batean laburbilduko dizkizuet: hiri falikoa da, bertikaltasuna da nagusi, horizontaltasunaren alde ari garen garai hauetan horrek dakarren guztiarekin. Naturaren indarra begi bistakoa da. Izan ere, bulebarretako zuhaitzak nagusitzen

dira, espaloiak leherraraziz eta loretoki tropikalak bat-batean edozein putzutan sorraraziz.

Dena dela, egoera kritiko eta konplexu horri nola aurea hartu da egungo kezka. Pentsamenduari gutxieneko bi geldiene aurreratzen zaizkio, beharrezkoa den diskurtso iraultzailea sortzeko xedez, hirigintza problematikaren bestelako epistemologia baten oinarri gisa.

1. go geldienea: *hiri formalaren eta ez-formalaren arteko bereizketa* gailentzeko diskurtsoa behar dugu, kategorizazio gutxieslea baita berau eta eskema sektario bati baitagokio. Beraz, orain arte bereizketa sozial basatian oinarritutako espazioa gaunditzea da helburua, pertsona guztiak, dutena dutela, denak hiriaren parte dira, hiria berea dela sentitzeko eskubidea dute, eta, are gehiago, bere esfortzuaz eraiki dituzten etxeak, habitata, komunitatea, zilegitasun osoz aitortu behar ditu *botereak*.

2. geldienea: XXI. mendeko hiri sozialista bolibartar bati dagokion keinu urbanistikoa behar dugu. Kolonia garaietan boterea ezartzea zuten helburu hirigintza politikak, dena ondo neurturik, zentro baten inguruan. Gero, sakabanaketa etorri zen eta interes pribatuak, partxeak bezala, hiriari itsasten joan ziren. Orain, gizarte lotura islatzen duten ikonoak behar ditugu, hau da, espazio publikoak lehenetsi, eta hirigintza proiektioan marrazten hasi orduko, lehenengo, mota ezberdinetako espazio publikoak margotu behar dira eta gero gainontzeko guztia.

Gauzak horrela, eta aurrera joan ahala, hurrengo galdera hauek sortzen dira:

Hirigintza politika berri batek behar duen kode berri bat nola asmatu erabat eraikita, idatzita dagoen espazio batean, hots, nola idatzi nobela berri bat jadanik izkiriaturik dagoen kaieran? Leherketa kontrolatuek eskaintzen dituzten aukerak ondo aztertuz, betiere *orrialde zuri* bat lortzekotan.

Hiria gertakizun kulturala dela pentsatzen hasi dira egungo egoera iraultzeko asmoz, hirigintzaz jarduteko orduan, bestelako epistemologia sortarazteko. Helburu horrekin sortu da *Fábrica Urbana*, Herri Boterearen Kultura Ministerioari atxikitako plataforma da berau. Behar bezalako plangintzarako eta prospektibarako informazio gabezia asko dagoenez, diagnostiko intuitiboak lehenetsi behar dira.

Espazio publikoen aldeko estrategia martxan da jada. Posizio ideologikoa harturik dago dagoeneko: lehenengo, independentziaren aldeko aldarrikapena eta, gero, menpekotasuna dator; lehenengo, pertsona eta, gero, merkatuaren interes kapitalistak; lehenengo, komunitatea eta, gero, gizabanakoa; lehenengo, oinezkoak eta, gero, autoak. Ideologia hori hirigintzan islatzeko, neurri politikoak, neurri fisikoak eta sinbolikoak uztartu behar dira.

Neurri politiko artean, orain arte pribatizaturiko espazio irekien demokratizazioa erabat bultzatzen da. Horrela, lehen petrolio industriaren klub pribatuak zirenak, orain, herriarenak dira, herriaren garapen kulturalaren esku jarri dira, *La Estancia* delakoa esaterako. Hiriaren bihotzean txertaturik dauden

golf-zelaia, *Country Club*-a, eta aireportu pribatua, *La Carlota* izenekoak, orain arte izan duten bokazio funtzionala herriratzen hasi da. Herriak erabakiko du zer nahi duen egin.

Neurri fisikoen artean, *Caracas* hiria zeharkatzen duten interkonektatutako espazio publikoen sekuentzia proiektatu da, hiritartasuna bultzatzeko, hiria zeharkagarria bilakatzeko; horrela, hiriarekiko kidesuna bultzatu nahi da, egungo errepide sistemak eragiten duen zatiketa gainditzeko asmoz, eta oinezkoentzat eta txirrindularientzat, irristalarientzat baino izango ez diren ibilbideak planteatuz, hiriko punta batetik bestera.

Neurri sinbolikoen artean, berrizendatze prozedurak hasi dira. Aurten 440 urte ospatzen dira hiri-eredu europar, kolonialista bati jarraituz *Caracas* hiria sortu zenetik. *Santiago de León de Caracas* izena aldatzear dago aurten, *Cuna de Simón Bolívar*, *El Libertador y Reina del Warairarepano* deituko da³. Horrelako nortasun kolektiboen garapen berrien aldeko apustuak sustatu nahi dira. (Adibidez, atzo *Pza. España* zena gaur *Pza. Euskal Herria* izendatzea). Izen aldaketok inposaturiko historia hainbatetan errepikatzen zaigun garaile inperialistaren historiaren kontrako borroka sinbolikoaren parte balira bezala sostengatzen dira, horrela, lekurik ez duen, edota sortu beharra dagoen memoria historiko baten alde egiten da. Kasu honetan tradizio independentista eta indigenista bati lekua egitea, oroitzea nahi da *Caracas* hirian (eta Errepublikako bazter gehienetan).

Amaitzeko, *Caracas* hiriaz azal dutakoa azal duta, garbi geratzen dena zera da, espazio publikoak lehenesten dituzten hirigintza politikak direla aro berri honi nortasuna ematen ari direnak.

¹ Natalia Medrano, *Fábrica Urbanako* koordinatzaileari eskerrak eman nahi dizkiot eskaini didan arretagatik idazki hau planteatzeko orduan.

² 2007ko abenduaren 2an aurreikusitako erreferendumean baieztatzen bada, *Hiri Eskubidea Konstituzioak* babestutako eskubidea izango da.

³ 2007ko abenduaren 2rako aurreikusita dagoen Konstituzio erreformak baietza lortzen badu.



